



ZEGAMA KO UDALA

2023KO UZTAILAREN 27AN UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIZ KANPOKO BILKURAREN AKTA.

Udaletxeko Bilkura Aretoan, idazpuruko eguneko arratsaldeko seiak eta hogeita hamar minutu direnean, Alkateak deituta eta lehen deialdian, Udalbatzarra elkartzen da, jarraian adierazten gai zerrendarekin ohiz kanpoko bilkura egiteko:

1.- 2023KO UDAL AURREKONTUKO 4/2023 KREDITU ALDAKETAREN ONARPENA.

ETORRITAKO UDALBATZARKIDEAK:

ALKATE-LEHENDAKARIA

Iker Zubeldia Catarain jn. (EH Bildu).

ZINEGOTZIAK

Ainhoa Herrasti Areitio and. (EH Bildu).

Aritz Agirre Garikano jn. (EH Bildu).

Nagore Arrieta Aranza and. (EH Bildu).

Denis Pérez Apaolaza jn. (EH Bildu).

Izaskun Igoa Arizcorreta and. (Zegama Lantzen).

Iñaki Xabier Albizu Ormazabal jn. (Zegama Lantzen)

Julian Iraola Lapizondo jn. (Zegama Lantzen)

EZ ETORRITAKO UDALBATZARKIDEAK:

Alina Dumitru and. (Zegama Lantzen). Ez etortzearen arrazoia ematen da.

Idazkaria, Igor Alustiza San Vicente.

1.- 2023KO UDAL AURREKONTUKO 4/2023 KREDITU ALDAKETAREN ONARPENA.

Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientearen berri eman da, kreditu gehigarrien modalitatekoa.

Idazkari kontu-hartzaileak egindako txostena irakurri da. Bertan adierazten da aipatutako espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin.

Era berean, Kontuen Batzorde Bereziak egindako aldeko irizpena eta onarpen proposamena irakurri dira.

Gaia aztertu ondoren, Udalbatzak, bozketa egiten du eta bozketaren emaitzak honako hauek izan dira:

Alde: Iker Zubeldia Catarain jn. (EH Bildu), Ainhoa Herrasti Areitio and. (EH Bildu), Aritz Agirre Garikano jn. (EH Bildu), Nagore Arrieta Aranza and. (EH Bildu), Denis Pérez Apaolaza jn. (EH Bildu), Izaskun Igoa Arizcorreta and. (Zegama Lantzen), Iñaki Xabier



ZEGAMA KO UDALA

Albizu Ormazabal jn. (Zegama Lantzen), Julian Iraola Lapizondo jn. (Zegama Lantzen).

Kontra: Ez

Abstentzioa: Ez

Hortaz, bertaratutakoek, legezko gehiengoz eta aho batez, onartzen dute erabaki dute:

Lehenengoa.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espediente, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapituluko laburpen honen arabera:

KREDITU GEHIGARRIAK

Kapituluak	Izena	Gehikuntzak
1	PERTSONAL GASTUAK	57.088,92
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	52.000,00
6	INBERTSIO ERREALAK	47.651,62
KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA		156.740,54

FINANTZAKETA

Kapituluak	Izena	Zenbatekoa
7 (SARRERAK)	KAPITAL TRANSFERENTZIAK	35.443,35
8 (SARRERAK)	FINANTZA AKTIBOAK	121.297,19
GUZTIRA		156.740,54

Bigarrena.- Jendaurrean ikusgai jartzea hamabost egunez, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Espediente honek aurrekontua onartzeko ezarritako gainerako tramiteak jarraitu beharko ditu.

Aztertzeko gai gehiago ez dagoenez, hasieran aipatutako eguneko arratsaldeko seiak eta berrogei minutu direnean Alkateak bilkurari amaiera ematen dio, esandakoa jasoarazteko, nik egiaztaturiko eta Alkateak sinaturiko akta hau egiten dudalarik.

Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **SINAed4bba3e-2861-4d8a-b1a2-24a0f4351025**

Dokumentu elektronikoen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:

<https://ust.gipuzkoa.eus?De=02510>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: <https://ust.gipuzkoa.eus?De=02510>



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

UDALBATZARRA AKTA 0727

CSV/EKS:

SINAed4bba3e-2861-4d8a-b1a2-24a0f4351025